



## **XXIX. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA**

### **EPAIMAHAIAREN AZKEN ERABAKIA**

XXIX. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko helburuarekin Andoaingo Udalak izendaturiko epaimahaia honako hauek osatu dute:

- Mahaiburua: Ainara Rodríguez, Andoaingo Euskara zinegotzia.
- Mahaikideak: Goio Arana, Maria Gonzalez Gorosarri, Goizalde Landabaso eta Xabier Landabidea.
- Idazkaria: Patxi Baztarrika.

Epaimahaiak ondorengo azken erabakia hartu du, aho batez.

### **AZKEN ERABAKIA**

Aurten hogeita bederatzi urte bete ditu Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak: XXX. edizioaren atarira iritsi da, beraz, euskal kazetaritzaren sari aitzindari eta dekanoa. Aurtengo deialdira, XXIX.era alegia, hogeitazazpi kazetari eta komunikatzailek aurkeztu dituzte lanak, zeinak askotarikoak baitira generoari eta formatuari dagokienez, nola baita ere edukiari dagokionez: idatziak eta ikus-entzunezkoak, erreportaje idatziak, irratsaio eta teleaio bakanak nahiz sortak, hedabide nazional nahiz toki komunikabideetan argitaratutakoak; guztira, lauogeita zazpi lan, bakantzat hartu eta banan-banan kontatuta. Ia guztiak sari nagusira aurkeztu dira, eta oso gutxi, aldiz, kazetari berria izeneko atalera.

Hala, lan horien guztien artean egin du hautua epaimahaiak. Ez da batere lan erraza izan, bere sorreratik sari honen oinarrietan azaltzen den legez, saritutako lanak komunikazio prestu eta modernoaren isla izan behar baitira, kalitatezkoak eta garaian garaiko beharrezkoak egokituak, eta, oro har, halakoxeak baitira aurkeztutako lanak. Esan behar da, sariaren atarian lan bikainak geratu direla. Kazetari berria atala izan da aurten oso aukera gutxi bildu duena, eta hain zuzen ere aukeraketarako lan gutxi izatean legoke, neurri batean bederen, epaimahaiak atal honetako sariari dagokionez hartu duen erabakiaren zergatia. Bikaintasuna eta berrikuntza ipar orratz hartuta ahalegindu da Epaimahaia bere erabakiak hartzen, 2016ko maiatzetik 2017kora arte argitaratu eta Sarira aurkeztu diren lanen gainean.

Esker ona azaldu nahi die epaimahai honek lehiaketara aurkeztu diren kazetari guztiei; esker ona ez ezik, baita beren lanaren balioaren aitormena ere. Zenbait kasutan ez digute epaimahaiaren erabakia erraztu. Hori, baina, euskarazko kazetaritzaren bikaintasunaren eta aniztasunaren isla da, eta horrexegatik dagokigu guztiei eskerrak ematea. Hain zuzen ere esandakoagatik, aurtengoan ere Epaimahaiak baliatzea erabaki du Sari Berezia emateko oinarrietan aitortua duen aukera.



Sari Nagusia elkarrizketa generokoa da, eta Sari berezia, berriz, erreportajearen eremukoa bete-betean. Gaurko notizia bihar-etzirako zahar bihurtzen duen zaparrada informatiboaren eta lasterketa teknologikoaren garaiotan, izenburu bidez eta karaktere oso gutxitan ematen den informazioa nagusitu da. Ez da hori inondik ere aurtengo lan sarituen ezaugarria. Aztergaia sakon jorratzea, elkarrizketatutako pertsonaren mezua eta jarrera ñabardurak alboratu gabe ezagutzea, informazioa eta fikzioa uztartuz errealitatea interpretatzea, esku arteko auziaren berri ematea alferrikako luzamenduetan ibili gabe baina behar besteko patxadaz: horiek eta gisa horretakoak dira XXIX. edizioko Rikardo Arregi Saria eta epaimahaiaren Sari berezia irabazi duten lanen ezaugarriak. Berehala aletuko ditugu saritutako lanei buruz epaimahaikideek nabarmendu dituzten argudioak.

Halere, XXIX. deialdiko lan sarituen eta kazetari saridunen berri eman aurretik, aipamen berezietarako tartea egitea erabaki da. Bi aipamen berezi egin ditugu aurtengoan. Bata da *ORTZADAR* gehigarriaren gaineko aipamena. Epaimahaikideek Noticias taldeak larunbatero kaleratzen duen *ORTZADAR* gehigarria goraipatu nahi dute. DEIAk sortua, 20 urte bete ditu dagoeneko, eta 500 zenbaki. Asterik aste, kale egin gabe, euskarazko literatur eta kultur sorkuntzaren berri eman du euskaraz. Uharte txikia izan da, eta da, erdal hedabide batean, baina leku propioa irabazi du eta erabateko gaurkotasunez jakinarazi ditu euskarazko sortzaileen lanak. Hori dela eta RAKSeko epaimahaikideek aintzat hartu nahi dute 20 urteko *ORTZADAR* gehigarriaren lan sendoa. Aipamen hau izan bedi beste hogeitertan jarraitzeko bultzadaxoa.

Aipamen berezia egiterakoan, aitormen berezia eta gu guztion esker ona ongi mereziak ditu *EGUNA* egunkariak. *EGUNA*ren sorreraren 80 urte bete dira aurtan. Hortaz, nola ez, *EGUNA*ri euskarazko kazetaritzaren aitormen berezia egitea dagokio Rikardo Arregi Kazetaritza Sariari.

Euskarazko kazetaritza eta prentsaren jarduera, eta jarduera horren premiaren kontzientzia, ez dira, noski, ez gaurkoak, ez eta ere atzo goizekoak. Beste batzuk lehenago erein eta gorpuztutakoaren gainean ari gara ekimen berrituak eta berriak hezurramitzen. Hamarkadaz hamarkada, gorabeheratsua eta askotarikoa izan da euskarazko kazetaritzaren joan-etorria. Ibilbide luze horretan, nolnahi ere, badira mugarri batzuk. Mugarri horietan nabarmentzekoa eta goraipatzekoa da *EGUNA*. *EGUNA* da euskaraz egindako lehen egunkaria. 1937ko urtarrilaren 1ean kaleratu zen, Bilbon. Ikerlarien esanetan, sustatzaileen artean nabarmentzekoak dira Juan Ajuriaguerra eta Lauaxeta. *Euzkadi* egunkariaren enpresa berekoa zen *EGUNA*, baina bere egitura propioa izan zuen, hots, zuzendaritza eta erredakzio talde propioa izan zituen. Manuel Ziarsolo zuzendari eta Agustin Zubikarai zuzendariorde zituela egin zuen bere ibilaldia Bilboko Posta kalean egiten zuten egunkariak. Ibilaldi laburra izan zuen, sei hilabete eskas besterik ez baitzuen iraun, garaiko jazarraldi faxistak jarraipena eragotzi zion arte: guztira 139 zenbaki, baina kaleratuak 138, ezagutzen direnak behinik behin. Bizkaiko Foru Aldundiak, zorionez, Euskal Herrian gure egunetara iritsia den Egunaren bilduma oso eta ezagun bakarra gorde du Bizkaiko Foru Liburutegian. Aita Manuel Larramendi XVII. mendeko euskalari andoaindarraren “ezina egina” sententziaren lekukoa zen *EGUNA*. Bere lehen editorialean “Hemen gara” eta, Etxepare gogoan, “Euskara, habil mundu guztira, Egunaren hegoetan!” aldarrikatuz kaleratu zen



EGUNari, “hemen jarraitzen dugu” esanez egiten diogu euskarazko kazetaritzaren aitormena 80 urte bete dituen honetan.

Eta, orain bai, gatozen XXIX. edizio honetako sarietara.

### **1.- KAZETARI BERRIA SARIA.**

Sari hau hutsik uztea erabaki du epaimahaiak. Hasieran esan bezala, atal honetara oso lan gutxi aurkeztu dira. Ondorioz, epaimahaiak ez du eskura izan gaur egun 27 urtez behetiko gazteek egiten duten kazetaritzaren lagin behar bestekorik tamaina honetako saria emateko. Kazetari gazteek egiten duten kazetaritza eta komunikazio sorkuntzan asko dira dagoeneko oso maila altua harrapatu duten lanak. Ordea, XXIX. ediziora aurkeztu diren gutxiak maila horretaraino iritsi gabe geratzen direla kontsideratu dute epaimahaikideek, hain zuzen ere Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak sustatu nahi dituen euskarazko kazetaritzaren bikaintasun, berrikuntza eta eredugarritasunari dagokienez. Kalitatezko lanak gero eta gehiago dira 27 urtez azpiko gazteen sorkuntzan, eta Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren erronka da datozen urteetan lan ugari horien neurriko lanak jasotzea, kazetari eta komunikatzaile berriak egiten ari diren lanaren lagin zabal eta adierazgarria lortzeko.

### **2.- EPAIMAHAIAREN SARI BEREZIA.**

Saridunak: **Iñigo Astiz eta Maite Mutuberria.**

Saritutako lana: *Kixotenean* izenburua duen erreportaje liburua.

Saria: diploma eta Xabier Lakaren serigrafia.

Iñigo Astiz kontalari bikaina da. Ausarta, orijinala eta zorrotza. Kixoteren inguruan egindako sortak bere idazkuntzaren abilezia erakusten du. Kazetaritzan bestelako kontatzeko erak posible direla erakutsi du sorta honetan. Kixoteren izpirituak ziprztindua, kontaera batzuetan zoro eta surrealista, beti zorrotz eta dokumentatua agertu du. Efemeride batetik, gainera, istorio oso bat sortu du kazetaritzara ekarriz. Iaiotasun izugarria erakutsi du Astizek, eta begirada propioz Kixoteren kontakizunean murgil arazten zaitu.

Astizen kontakizunak berak bakarrik ez du, ordea, erreportajea osatzen eta borobiltzen. Bi ikuspegiren sorkuntza da *KIXOTENEAN* erreportaje liburua: kazetariaren eta ilustratzailearen ikuspegia, biak bat egin izanaren emaitza da *KIXOTENEAN*. Hiru genero -literatura, kazetaritza eta ilustrazioa- uztarri berean lotuta



ageri dira. Maite Mutuberriaren ilustrazioek ere mundu erreala eta imajinarioa interpretatzen dituzte aldi berean. Oso marrazki modernoak dira, ez dira inondik ere marrazki zaharkituak, duela lau mende hil zen Miguel Cervantesek literatura modernoaren iturburu izango zen obra idatzi zuen antzera, Mutuberriak ere modernotasunez blaitu du Kixoteren bila egindako bidaiaren kontakizuna.

Berria egunkarirako idatzitako artikulu sorta bat da saritutako liburuaren bizkarrezurra. Ilustrazio gehienak ere artikulu haiekin argitaratuak dira. Baina saritutako liburuak baditu, egileek esan bezala, “elementu berriak ere. Espresuki libururako zuzendu, moldatu eta aberastuta daude kronikak, eta propio sortutako irudi berri batzuk ere” badira liburuan. Gainera, liburuan badira “On Kixote liburuaren euskarazko hainbat itzulpenen txatalak, testu labur berri batzuk eta aurrez argitaratu gabeko zaldunaren heriotzari buruzko kronika oso bat ere”.

Sorkuntza paregabea da, zalantzarik gabe, *KIXOTENEAN*. Irakurterraza eta oso goi mailakoa, aldi berean. Eredugarria.

### **3.- RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA.**

Sariduna: **Goiena telebistako *Kulturriketak* saioa egiten duen lantaldea.**

Saritutako lana: Goiena telebistako *Kulturriketak* saioa.

Saria: 9.000 euro, diploma eta Xabier Laka eskultorearen oroitikurra.

Europako edozein telebistak izan lezakeen saio modernoa da. Bizi garen garai bizkorretan pausaldia egiteko aukera ematen du modu atsegin eta entretenigarrian, eta aldi berean arinkieratik urrun. Ikusentzulea berehala harrapatzen du elkarrizketak, solasean ari direnak zeinahi izan. Bestetik, saioak ez du adin edota sexu bereizketarik egiten, ondo orekatuta dago edozeinek abaro egin dezan bertan. Saioa borobila da, hasieratik amaieraraino. XXI. mendeko telebista profesional eta moderno batek izan beharko lituzkeen elementuak ditu *KULTURRIKETA*K saioak.

Formari dagokionez balio handiko saioa da. Izan ere, oso erraz jarraitzen da, oso xamur “korritzen” du elkarrizketak, baina emaitza hori izan dadin, atzetik, edo alde aurretik, gidoigintza eta edizio lan handia dago eginda. Eskenategiaren erabilera modernoa ere aipagarria da. Azken emaitza, bistan denez, magikoa da.

Kontrastera jartzen diren ikuspegiak kontrajarriak eta osagarriak izan ohi dira aldi berean. Eta, hau ere aldi berean, freskoa eta serioa da saioa, gai sakonak modu errazean entzun eta jarraitzeko eran eskaintzen dituen saioa baita. Apaltasunetik eta harrokeriarik gabe egindako saio profesionala da oso *KULTURRIKETA*K. Gaurkotasun betearen duten gaiak aztertzen dira, nahiz eta agenda komertzialetik kanpo dauden gaiak izan. Izan ere dena ez baita agenda komertziala, agenda komertzialetik kanpo ere mundu oso bat baitago gaur egungoa dena. Hori guztia ikustarazten eta aztertzen asmatu du *KULTURRIKETA*K saioak.



Laburbilduz, Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak euskarazko kazetaritzan sustatu nahi dituen balioak erabat betetzen ditu *KULTURRIZKETAK* izeneko elkarrizketa saioak: kalitatea, garaian garaiko beharrianetara egokitua izatea, modernotasuna, bikaintasuna, berrikuntza eta eredugarritasuna.

Aho batez harturiko Azken Erabakiaren akta hau epaimahaikide guztiok sinatzen dugu gaur, Andoainen, bi mila eta hamazazpiko maiatzaren 31n.

Ainara Rodriguez

Goio Arana

Maria Gonzalez Gorosarri

Goizalde Landabaso

Xabier Landabidea

Patxi Baztarrika